



**Fantasiako eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

## OIHUA!

### Fantasiako Zinema Sorkuntza – Deialdia

#### DEIALDIAREN XEDEA

Azken urteotan, euskarazko zinemagintza-ekoizpenak arrakasta handia izan du eta nazioartean oihartzuna izan du. Fantasiako generoa ez da arrakasta horretatik at egon, loraldi- eta zabalte-garaia bizitzen ari baita: sortzaile berriak oraingo eta etorkizuneko zinema itxuratzen ari dira.

Testuinguru horretan jaio da **Oihua!**, Donostia Kulturak, San Sebastián-Gipuzkoa Film Commissionek eta Gazteak bultzatutako ekimena.

Euskaraz filmatzen den fantasiako generoa indartzeko helburuarekin sortzen da. Gidoiaren sorkuntza nobela saritu nahi du, ikus-entzunezko profesionalek aukeratutako proiekturako zeharkako aholkularitza bat ezarrita, eta azken emaitza izango da film labur bat ekoiztea eta egitea, dena Larrotxene Bideoren tutoretzapean. Film laburra Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 31. Astean (2020) estreinatuko da.

#### PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Euskarazko gidoia aurkeztu beharko da, testu jatorrizkoa, ez dira itzulpenak onartuko.

Deialdia 35 urte arteko sortzaile hasiberrientzat da. Hasiberrientzat jotzen da modu komertzialean banatutako fikziozko ikus-entzunezko lanak idatzi, zuzendu edo ekoitzi ez dituen pertsona oro.

Deialdia banakako pertsona fisikoei zuzenduta dago soilik. Ezin izango da aurkeztu bere ideia batera garatu nahi duen kolektiborik.

Aukeratutako hautagaiak erabakiko du bere gidoia zuzendu nahi duen, bere interesaren eta prestasunaren arabera. Hala ez bada, antolatzaileek haren errealizazioa bermatuko du.

Filmazioa, osorik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan egin behar izango da.



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Departamento de Cultura,  
Turismo, Juventud y Deportes



ORAIN  
KULTURA



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,  
Ostalaritzako eta Turismo Zinegotzigoa  
Concejalía de Impulso Económico,  
Comercio, Hostelería y Turismo

donostiasustapena  
fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN  
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA  
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT





## ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Dokumentazio guztia, idatzizkoa eta grafikoa, [larrotxene\\_bideo@donostia.eus](mailto:larrotxene_bideo@donostia.eus) helbidera bidali beharko da "Oihua! deialdia" gaia jarrita. Eskatzaileak mezu bat jasoko du harrera baieztatzeko, izen-ematea behar bezala egin dela ziurtatzearen. Nolanahi ere, eskabidea egiteko, honako agiri hauek bidali beharko dira:

- Film laburraren gidoia, gehienez 20 minutukoa (20 folio, DIN A4 formatuan eta courier new 12 letra-tipoaz), beldurrezko, fantasiako eta/edo zientzia-fikziozko generoen barruan. Ez da animazio-proiekturik onartuko.
- Eskatzailearen datu guztiak.
- NANaren fotokopia.
- Curriculum vitae.
- Motibazio-gutuna (gehienez 3.000 karaktere).
- Lehendik egindako ikus-entzunezko lanen estekak, hala badagokio.

Hautagaitzak aurkezteko epea **2019ko abenduaren 19an** amaituko da, 24:00etan. Deialdiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan [larrotxene\\_bideo@donostia.eus](mailto:larrotxene_bideo@donostia.eus) helbidean.

## PROIEKTU IRABAZLEA HAUTATZEA

Hautaketa-batzorde bat eratuko da eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Batzorde hori osatuko dute proiektuaren zuzendari eta lehen arduradunak, Paul Urkijok, eta Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asteko, Larrotxene Bideoko, San Sebastián-Gipuzkoa Film Commission-eko eta Gazteako ordezkariak. Honako hau baloratuko da:

- Proposamenaren sormena eta kalitate artistikoa.
- Proposamenaren bideragarritasuna ekoizpenaren ikuspegitik.
- Euskararen erabilera.

Jasotako gidioen artean proposamen bakarra aukeratuko da. Proiektuaren koordinatzaileak, ordezkotzat, gidoiaren bat erreserbatzeko aukera izango du, hautatutakoek uko egingo balute edo ordezkatu beharko balira. Behin partaidetza guztiak egiaztatu ondoren, erreserba-gidoi horiek ere suntsitu egingo dira.





**Fantasiako eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

Ebazpena aukeratutako pertsonari telefonoz jakinaraziko zaio 2020ko urtarrilaren 12a baino lehen. Era berean, kontsulta egiteko aukera izango da web-orri hauetan data horretatik aurrera: [www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus), [www.sansebastianhorrorfestival.eus](http://www.sansebastianhorrorfestival.eus) eta [www.fomentosansebastian.eus/filmcommission](http://www.fomentosansebastian.eus/filmcommission). Batzordearen erabakia apelaezina izango da.

## SARIA

Aukeratutako proiektua honako ekarpen hauekin sarituko ditu erakundeak:

- Gidoiko profesional batek azken idazketa-prozesuan aholkularitza ematea.
- Filmaketaren preproduzioko eta antolamenduko prozesuan zehar laguntzea.
- **Paul Urkijo** errealizadorearen aholkularitza teknikoa eta zuzendaritzaren arlokoa.
- Larrotxene Bideo komunitatetik datorren film laburra grabatzeko eta postproduzitzeko, ikus-entzunezko ikasle eta profesionalaz osatutako talde teknikoa.
- Larrotxene Bideotik datorren film laburra egiteko eta editatzeko beharrezkoak diren makineria eta materialak.
- Larrotxene Bideok kudeatutako produkzio-gastuen poltsa.
- San Sebastián-Gipuzkoa Film Commission-en laguntza eta aholkularitza aurreproduzio- eta produkzio-fasean: kokalekuak bilatzeko eta filmaketa egiteko beharrezkoak diren baimenak lortzeko lankidetzatza.

Film laburra **Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asteko 2020ko edizioari dagokion** programazioaren parte izango da. Hautatutako pertsona filmeko kredituetan agertuko da, eta bertan duen papera egiaztatuko da. Aukeratutako ideiak 300 €-ko ordainsaria jasoko du gidoia sinatu duen pertsonarentzako egile-eskubideen kontzeptupean.

Film laburrak Larrotxene Bideoren ekoizpen baten tratamendua izango du, zinemaldietan izena emateko eta litezkeen sariak jasotzeko.



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Departamento de Cultura,  
Turismo, Juventud y Deportes



ORAIN  
KULTURA



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,  
Ostalaritzako eta Turismo Zinegotzigoa  
Concejalía de Impulso Económico,  
Comercio, Hostelería y Turismo

donostiasustapena  
fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN  
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA  
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT





**Fantasiako eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



donostia  
kultura

## BESTELAKOAK

Proiektu honetan parte hartzeak bere oinarriak onartzea dakar. Saria onartzeak gidoia ustiatzeko eskubideak lagatzea dakar, egileari dagozkion eskubide moralei kalterik egin gabe. Proiektuaren kredituetan, behar bezala adieraziko da deialdi honetan aukeratutako pertsonaren titulartasuna.

Ebazpen honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, ez-betetzean erori dela ulertuko da, eta onuradunak jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu. Oinarri hauetan jaso ez den edozein gairen aurrean erabakitze gaitasuna Donostia Kultura EEPren esku egongo da.

Hautatutako pertsonak, proiektua gauzatzea dela-eta, errespetatu egin beharko dute eskuratzen duten informazioaren izaera konfidentziala, baita izaera hori ematen zaion edo berez duen izaeragatik halakotzak hartu behar den informazioa ere.



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Departamento de Cultura,  
Turismo, Juventud y Deportes



ORAIN  
KULTURA



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,  
Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa  
Concejalía de Impulso Económico,  
Comercio, Hostelería y Turismo

donostiasustapena  
fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN  
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA  
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

